

xinple!

EUSKARA



AGOIZKO UDALA

22. zenb. 2021eko uztaila

ZERBITZUAK

Udaletxea 948 33 60 05

Euskara Zerbitzua 948 33 65 65

Kultur Etxea 948 33 66 90

Cederna Garalur 948 33 63 37

Oinarrizko Gizarte Zerbitzua 948 33 40 95

Liburutegia 948 33 64 53

San Migel Ikastetxea eta Institutua 948 33 63 09

Bisitaldi gidatua Elizara 637 44 81 07

Dya 948 33 60 65

Suhiltzaile Boluntarioak 948 33 65 00

Udal Pilotalekua 948 33 61 64

Kirol Gunea 948 33 67 06



ÍNDICE

3. AGOITZEK TOKIKO AGENDA 21 BERRITU DU, ETA DATOZEN 5 URTEETARAKO EKINTZA PLANA EGINA DAGO
5. PARLAMENTUAK ITOIZEK KALTETUTAKO UDALERRIEKIN LAN BATZORDE BAT OSATZEA ESKATU DU ZEHARBIDE ALTERNATIBOIA IRAGARTZEKO SEINALEAK
6. AGOIZKO DBHI BERRIA EGITEKO OBRAK HASI DIRA
7. GOBERNUAK INDUSTRIARAKO LURZORUA ESKURATU DU ENERGIA BIRGAITZEKO PLANARI BURUZ AGOIZKO HERRI LURRAK BERRESKURATZEKO PLANA
8. TXAKURREN ORDENANTZARI BURUZ PILOTALEKUKO KANTXA TXIKIAREN ERABERRITZEA 2.823 BIZTANLE GARA DAGOENEO
9. HERRITARREN BABESARI BURUZKO LANKIDETZA HITZARMENA BERRITU DA PILOTALEKUKO LEHEN SOLAIRUKO LOKALAREN ERABILERA ARAUTZEKO ORDENANTZA HEKUNTZAK GARRAIO ZERBITZUA ZABALDU DIE BATXILLERGO ETA LANBIDE HEZKUNTZAKO 1.870 IKASLERI
10. AGOITZ MIKEL ZABALZAREN KASUAREN EGIA JAKITEKO ESKAKIZUNARI ATXIKI ZAIO JUSTIZIA MINISTROA, AGOITZEN
11. CEDERNA GARALURREK 5 PROIEKTU BERRI LEHENETSI DITU CEDERNA GARALURREK FAKTURA ELEKTRIKOA MURRIZTEKO LAGUNTZA EMATEN DU AGOITZALDEKO MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZUEKIN IZANDAKO TOPAKETA
12. ASPACE AOIZ-EK 2 MILIOI INBERTITUKO DITU 'DESPENTSA EHUNTZEN' AGOITZERA IRITSI ZEN SAHARAREN ALDEKO JANARI BILKETA
13. EMAKUMEAREN EGUNA OSPATZEKO EKITALDIAK EMAKUME POLITIKOEN FOROAK BERE JARDUEARI EGIN DIO BERRIRO
14. JUBILOTEKA: ERABILTZAILAILEEN ETA HAIEN SENIDEEN ASEBETETZEA KREDITATU DA COVID-19A: IZAGA MANKOMUNITATEAREN ZERBITZUAK "SARTU GOLA ERREFUSARI... IRABAZI ORGANIKOAREKIN"
15. HITZARMENAK SINATUTA, KULTURA ETA GIZARTE ARLOETAKO TALDEEKIN BERTAN BEHERA, INAUTERIAK ETA SANISIDROAK
16. KULTUR BALANTZEA
17. LEIRE UNZUÉ VILLANUEVA, SARIDUNA SAXIANA NAZIOARTEKO LEHIAKETAN AGOITZ HIRIA NARRAZIO LABURREN XIV. LEHIAKETAREN SARIAK BANATU DIRA
18. ZALETUEN ERREMONTE TXAPELKETA 2021 D EREDUAREN ALDEKO KANPAINARAKO BIDEOAK AGOIZKO UDALAK EUSKARAREN EGOERA SOZIOINGUISTIKOAREN AZTERTUKO DU MINTZAKIDE, EUSKARA PRAKTIKATZEKO EGITASMOA

xingle!

Oharra: Aldizkariko erredakzio kontseilua Udaleko alor eta batzorde guztietako zinegotziek osatzen dute eta udal teknikarien eta garapenerako agentearen laguntza dute. Horiek aukeratu eta idatziko dituzte zenbaki bakoitzean argitaratuko diren testuak.

AGOITZEK TOKIKO AGENDA 21 BERRITU DU, ETA DATOZEN 5 URTEETARAKO EKINTZA PLANA EGINA DAGO

URTEBETE LANANEAN ARITU ONDOREN, 2021-2026 ALDIRAKO AGOIZKO TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA PLAN BERRIA AURKEZTU DA.

ZER DA TOKIKO AGENDA 21?

Tokiko Agenda 21 udal garapen plan edo estrategia bat da, ingurumen, ekonomia eta gizarte politikak irizpide jasangarriekin integratzean oinarritua. Agenda 21 Rio de Janeiro 1992an

teko: "Aalborgeko Gutuna" esaten zaio, Dani-markako hiri horretan hartu zelako akordioa. Handik denbora gutxira, Nafarroa bere udalei eta mankomunitateei ekonomia, ingurumen eta gizarte politikak jasangarritasun irizpideak dituzten ekintza planetan sartzeko proposamena egiten hasi zen. Tokiko Agenda 21 esaten zaio, eta oso ezarrita dago foru erkidegoan. Azken urteotan, Tokiko Agenda 21ek bilakaera izan du Garapen Jasangarriko Helburuetara

PRESTATZEKO PROZESUA

Garapen plan hori tokiko agintarien, udal teknikarien, inplikaturako eragileen eta herritarren artean prestatzen eta erabakitzen da.

Agoizko Tokiko Agenda eguneratzeko, 2012. eta 2015. urteen artean egindakoa, orain arte indarrean egon dena, hartu da abiapuntu.



egindako "lurraren goi-bileran" proposatu zen, ingurumen irizpideak eta giza garapena harkunde ekonomikoan integratzen laguntzeko asmoz.

XXI. menderako ingurumen agendaren ideia berehala bereganatu zuen Europar Batasunak, eta 1994an metodologia bat proposatu zuen haren helburuak udal errealitateara erama-

edo Agenda 2030era egokitzeko, eta tokian-tokian Espainiako Hiri Agendan zehaztu da.

Nafarroan, guztira, 54 agenda daude, 225 udal ingururen jasangarritasun planak biltzen dituztenak. Gure eremuan Agoizko Tokiko Agenda eta Irati Mankomunitateko Eskualdekoa ditugu.

Lana bi fasetan egin da: hasierako diagnostiko bat, 2020. urtearen amaieran gauzatu zena, eta kontrastatzeko eta ekintza plana egiteko beste fase bat, 2021eko lehen seihilekoan garatu dena.

Diagnostikoa egiteko, oso baliagarria izan da 2012an eta 2013an egindakoa, eta berrikusi eta eguneratu egin da, egungo egoerara egokitze-






ko. Balorazio berriak Espainiako Hiri Agendak proposatutako eskema jarraitu du. Eskema hori 10 ardatz tematikotan antolatuta dago, eta horietako bakoitzerako egoeraren azterketa egin da.

Oro har, ardatz horietako bakoitzean, Agoitzen egoera hala moduzkoa edo ona da. Diagnostikoa egiteko, indarguneak, hobetu beharreko alderdiak eta balorazio orokorra hartu dira kontuan. Emaitzak hurrengo urteetan landu beharko lirartekeen hobetzeko alderdiak aipatzeko dituzte.

Egoeraren diagnostiko horretatik abiatuta, bigarren lan faseari ekin zaio. Fase horretan, jarduteko proposamenak jaso, aztertu, baloratu eta ordenatu dira, eta horren emaitza izan da Tokiko Ekintza Plan berria, aurretiatzko diagnostikoan identifikatutako erronkei erantzun nahi diena.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Agenda 21 berria urtebetean zehar landu da, eta herritarren parte-hartze zabala izan zedin ahalegina egin da. Hori errazteko, lau foro



publiko eta beste hainbeste bilera deitu dira horretarako antolatutako bi lantaldeetan (teknikariak eta politikariak). Foro eta bilera horiek osatzeko, 20 elkarrizketa sakon egin zaizkie hautetsiei, teknikariei eta herriko elkarteetako eta eskola-elkarteetako ordezkariak. Gainera, prozesuaren une desberdinetan hiru web-galdetegi ireki dira.

Guztira, 2021eko urtarrietik maiatzera bitartean, 30 partaidetza akzio proposatu dira, eta horietan 170 partaidetza inguru izan dira.

EMAITZA, TOKIKO EKINTZA PLAN BERRIA

Lan horren ondorioz, Agoizko Tokiko Ekintza Plana burutu da, Espainiako Hiri Agendaren 10 ardatz tematikoetan antolatutako 86 ekintza biltzen dituena. Gainera, planean jasotako 21 ekintza lehenetsi dira, premiazkoak edo garrantzitsuak direlako.

Hemendik aurrera, Udalaren bultzadarekin eta herriko eta eskualdeko eragile instituzional eta sozialen elkarlanarekin abian jarri nahi dira ekintzak.

PARLAMENTUAK ITOIZEK KALTETUTAKO UDALERRIEKIN LAN BATZORDE BAT OSATZEA ESKATU DU

Nafarroako Parlamentuak mozio bat onartu zuen, zeinaren bidez Foru Gobernuari eskatzen baitaio «hilabeteko epean lan-batzorde bat eratzeko Agoitz, Artzibar, Longida eta Orotz-Betelu udalerrien eta Lurralde Kohesio eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako departamentuaren artean, toki-erakundeek helarazitako beharrak direla eta, lurraldea sustatzeko mekanismoei ekiteko».

PSNk, Geroa Baik eta Podemos-Ahal Duguk aurkeztu zuten proposamena, eta Navarra Suma eta Izquierda-Ezkerraren alderdietako babesak jaso zuen. Eh Bildu, aldiz, abstenitu egin zen, ekimenak ez dituelako udal horien asmoak betetzen, Adolfo Araizek adierazi zuen bezala.

Ekimen honen bidez, proposamena egin dutenek Itoizko urtegiaren inguruko udalerrien aldarrikapenei erantzun nahi diete; izan ere, hainbat agerraldi eta bileratan, «Inguru horretako landa-, nekazaritza- eta turismo-garapena errazteko mekanismoak ezartzea eskatu dute, bai eta eraikitako azpiegitura hidraulikoak haien lurraldean duen eraginari aurre egitea ere».

Navarra Sumak emendak bat aurkeztu zuen, proposamena egin zutenek onartu zutena, lan-batzordean Ebroko Konfederazio Hidrografikoa ere ordezkaturik egon dadin, «Itoizko urtegiaren eta Nafarroako Ubidearen eraikuntzan, garapenean eta kudeaketan funtsezko eragilea delako». Talde guztiek babestu zuten epigrafe hori, EhBilduk izan ezik.

Eh Bilduk, bestalde, lan batzordeari buruzko emendakin bat aurkeztu zuen, baina ez zuten onartu. Helburua, «Aztertzea, eztabaidatzea eta, hala badagokio, toki-erakunde horiek



egindako proposamenaren alternatiba bat proposatzea», Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzeko.

ESKUALDEKO UDALEN PROPOSAMENA. Lan-mahaia onartu aurretik, Agoizko, Artzibar, Longidako eta Orotz-Beteluko udalek manifestu bateratu bat egin zuten, eta bertan adierazi zuten 2020ko otsailean urtegiaren egoerari buruzko txosten bat aurkeztu zirela parlamentuko alderdi guztiei, eta Gobernuari eskatu zioten eskualdeari elkartasuna adierazteko mekanismo bat ezar bezala, eskualdeak Nafarroako garapen sozioekonomikoari ematen dioten guztiarengatik.

Ondoren, udalek Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzeko lege-proposamen bat aurkeztu zu-

ten. Bertan, konpentsazio gisa, herriek kudeatuko zuten kanon bat eskatzen zuten, egiteke zeuden proiektuak garatzeko edo erakunde bakoitzak egokitzen jotzen zuenerako. Zehazki, 2 zentimo jasotzea Nafarroako Ubidetik ateratzen den m³ bakoitzeko. Proposamen hori legebiltzar-talde guztiei eta Gobernuari helarazi zieten. Abenduan, Lurralde Kohesio Departamentuarekin bilera egin ondoren, departamentu hori aztertu eta erantzuna emanen zuelakoan geratu zen, baina ez zen inoiz iritsi. Harriduraz jaso zuten onartu berri den mozioaren berri, aurretik inguruko udalekin hitz egin gabe.

Hala eta guztiz ere, lau udalek prest agertu dira Nafarroako Gobernuarekin lan bilerak egiteko, zonaldearekiko elkartasun mekanismoak biltzeko eta aztertzeko.

ZEHARBIDE ALTERNATIBOA IRAGARTZEKO SEINALEAK

Asteburuetan Karrika Berrian ibilgailurik ez ibiltzeko, Udalak seinale batzuk jarri ditu, bisitatzen etortzen diren eta kale hori oinezkoentzat jartzeko neurria ezagutzen ez duten pertsona guztiei ohiko trazaduraren ordeko ibilbide bat eskaintzeko.

Gogorarazi nahi dugu pandemia dela eta, ostalaritzari agertu zaizkion arazo ekonomiko garrantzitsuen ondorioz, udalak baimen berezi bat onartu zuela tabernekin terrazak hainbat gunek publikotan jartzeko. Gainera, jendea hiriko arteria nagusian modu seguruan ibili ahal izateko, Karrika Berria oinezko bihurtzea erabaki zen, asteburuetan, orduetegi zehatz batzuetan.



Honako hau da egokitutako ibilbide alternatibo «berria»: osasun-zentroko atzealdea, Domingo Elizondo auzoa, iturria, Kultur Etxea, Irigai Auzoko biribilgunea, Toki Eder pilotalekua.

Udalak positiboki baloratzen du oinezkoentzako egokitze neurria, eta, dagoeneko, ibilgailu gutxiago ibiltzen direla nabari da, arauak batzuetan betetzen ez badiren ere. Era berean, badaki arau honek eragozpenak sortzen dizkielela Karrika Berrian etxebizitza edo garajea dutenei, horietara iristeko arazoak izan ditzaketelako. Hala ere, herriko hirigune historikoa oinezkoentzat egokitze apustua irma da.

ARDATZ TEMATIKOAK	LAN-LERROAK	EKINTZAK	LEHENETSITAKOAK
1. LURRALDEA, PAISAIA ETA BIODIBERTSITATEA	3	10	2
2. HIRIGINTZA EREDUA ETA POPULATZEA	6	10	5
3. KLIMA ALDAKETA	3	8	3
4. EKONOMIA ZIRKULARRA	4	12	2
5. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	2	6	2
6. GIZARTE-KOHESIOA ETA AUKERA-BERDINTASUNA	2	11	4
7. HIRI EKONOMIA	2	14	3
8. ETXEBIZITZA	2	6	-
9. ARO DIGITALA	2	2	-
10. ESKU-HARTZEKO TRESNAK ETA GOBERNANTZA	4	7	-

AGOIZKO DBHI BERRIA EGITEKO OBRAK HASI DIRA


Inguru horretako perimetro osoa hesitu eta Kanpondoko aparkalekuan obra-etxola eta garabia jarri ondoreen, eraikitzen hasi dira Agoizko DBHI berria. Rio Valle, S.L.k eginen du obra, enpresa esleipenduna baita.

Gainera, makineria obretara sartzeko ibilbide bat prestatu da. Hilerriko bidea, Siemens-Gamesa biribilgunera ateratzen dena, kamioiak sartu eta ateratzeko erabiliko da, eta Irati auzoko kale baten barna joanen da. Makineria etengabe zirkulatzen ari denez, kale horretan ezin izanen da aparkatu obrek dirauten bitartean.

Hartu den beste neurri bat da Irigai auzoa eta Kanpondoa lotzen dituen bidea, futbol zelaia zeharkatzen duena, ixtea. Eraikina eginen den lur-zatia hesi batekin itxi denez, ezin da kirolgunera ailegatu.

Ondorioz, Kanpondoko instalazioetara sartzeko, kirolgunera ixten duen hesiarekiko paraleloa den, oinezkoentzako egokitua, bide bat erabili ahal izanen da.

Agoizko Udalak ulertzen du obra horiek eragozpen handia izanen direla ere hurbilen bizi direnentzako bereziki, eta, zehazki, Irati auzoko 17. zenbakitik 23.era bitarteko etxeetakoentzako. Hori dela eta, ulertzea eta pazientzia edukitzea eskatzen dugu, proiektu hau auzo-



tar guztien onerako izanen baita, zalantzarik gabe, maila pedagogiko altua eta kalitatezko hezkuntza bultzatuko baititu.


Instituto berria altxatzeak 2,89 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa suposatuko du, bederatzi hilabetetan eginen da, eta lanak urte honen amaierarako bukatuko direla aurreikusita dago. Zentro berriak Udalak utzitako 3600

m² -ko lurzatie hartuko du. Espazio horretan eraikin bat eginen da, beheko solairua gehi bi solairu izanen dituen, eta 2981 m² -ko azalera izanen du guztira. DBHko bi lerro eta erdiko edukiera izanen du zentroak, eta hamar gela arrunt izanen ditu, gehi beste bederatzi espezifikoa eta bestelakoak, bai eta laborategia, bulegoak, irakasle gela eta departamentuak, bai eta beharrezkoak diren gainerako espazioak ere, hala nola biltegiak, komunak edo instalazio-gelak.

Eraikin berriak gaur egun San Migel ikastetxe publikoan ikasten ari diren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako espazio propioa edukitzea ahalbidetuko du. Horri esker, Haur Hezkuntzarako eta Lehen Hezkuntzarako espazioa arinduko da.

ESTALKIA ETA ESTALPEKO ZOLA. Instituto berria altxatzeaz gain, oraingo ikastetxearen eta polikiroldegia artean, estalki bat eginen da. Horren bidez espazio estalia eta zabala lortuko da. Estaliko den espazio horren zoru berdin duko da, ikastetxearekiko duen altuera zuzen duz, pista uniforme bat lortzeko.

Gaur egungo ikastetxea 1977an inauguratu eta 1996an zabaldu zen. Etengabe egin izan dira instalazioak hobetzeko eraberritze lanak: sukaldea, sartzeko arrapala, komunak, hodi-terria, berotzeko sistema, kanpoko arotzeria... Eta oraindik egiteke daude beste hobekuntza garrantzitsu batzuk, teilatua esaterako, zeinei jasotzen diren laguntzen arabera ekiten joanen garenak.



- 1 PISCINAS IGERILEKUAK
- 2 POLIDEPORTIVO POLIKIROLEGIA
- 3 COLEGIO ACTUAL GAUR EGUNGO IKASTETXEA
- 4 NUEVO IESO DBHI BERRIA



GOBERNUAK INDUSTRIARAKO LURZORUA ESKURATU DU

María Chivite presidentea, José M^a Aierdi presidenteordearekin eta Elma Saiz Ekonomia eta Ogasun kontseilariarekin batera, Zangoza eta Prepirineo eskualdeko udal-ordezkariekin bildu zen, eskualdean eginen diren zenbait ekimen eta inbertsio aurkezteko. Ekitaldia Zangozako Karmengo Auditorioan egin zen, eta hogeit bat udal ordezkarik izan ziren, tartean Angel Martin Unzué Agoizko alkatea, Cederna Garalur Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioko kideak, Zangozako Eskualdeko Mankomunitateko eta Iratiko Hiri Hondakin Solidoen

Mankomunitateko ordezkariek.

Bileran, Gobernuak Agoizko industrialdean 30.000 m² industria-lurzoru (gaur egun erabilen ez duena eta finantza erakundearen esku dagoena) erosi zituela jakinarazi zen. Lur pribatua publiko bihurtzeko ekimen honen helburua Agoizten enplegua eta aberastasuna sor-tzen duten enpresak erakartzea da, eremu kaltetua eta langabezia tasa altua baitago. Gobernuak onartu egin zuen 60.000 m²-tan negoziatu izana, baina, azkenean, erositako lurzorua

30.000 metrokoa da, eta Neinsa parean dago, Ilpea eta errepedearen artean.

Agoizko alkateak positibotzat jo du albisteak izan ere, zonaldeak egoera industrial prekariora eta langabezia tasa altuari (% 15era iristen da) iraulia emateko beharrezko dago. Gainera, Angel Martin Unzuék adierazi duenez, Agoizko Udalak Nasuvinsa enpresa publikoaren esku dagoen Solanoko pabilioi zaharretan ekintzaileentzako enpresa-haztegi bat sortzea proposatu dio Gobernuari.

ENERGIA BIRGAITZEKO PLANARI BURUZ

Apirilaren 14an, asteazkena, Nafarroako Gobernuak bultzatutako duen Birgaitze eta Birsortze Plan berriari buruzko informazio-bileran egin zen Agoizko Kultur Etxean, Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioaren (FNMC), Nasuvinsa sozietate publikoaren eta Etxebizitzak eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoen (ORVE) laguntzarekin.

Bileran horretan, toki-erakundeak gonbidatu ziren partikularrei energia birgaitzeko proiektuetarako udal-laguntza teknikoak ematera, banaka eta/edo taldeka, energia-eraginkortasuneko eta ingurutzailerik termikoetako proiektuetan. 2025era arte iraunen duen proiektu honi atxikitzen zaizkion udalek konpromisoa hartzen dute behar duten kontratazio teknikoaren zati propor-tzionalaren % 10 finantzatzeko, % 90ek Life Nadapta proiektu europarraren kontura ematen baitu diru-laguntza.

Horren harira, Agoizko Udalak proiektuan parte hartzeko interesa agertu du. Pirinioaurreko udalen eta Zangozako eskualdearen manifes-



tuak aurkeztu eta martxan jartzeko eredu berrantolatu ondoren, toki-erakunde bakoitzarekin lan-erakunde bakoitzarekin, esku-hartze globaleko planak batera finantzatzeko aukerari eta gizarte-kalteberatasuneko laguntzen ordenantzak sartzeari buruzko hitzarmenak idatziko dira.

Proiektu hau Agoizten energia-eraginkortasuna hobetzearan aldeko apustu garbia da, eta aukera paregabea da datozen urteetarako Europatik, Estatutik eta Nafarroatik energia-artikulo finantza-baliabide garrantzitsuak iritsiko direla iragarri baita.

AGOIZKO HERRI LURRAK BERRESKURATZEKO PLANA



Joan den otsailaren 20an, Agoizko Udalen herri lurretako zenbait lekutan zuhaitzak landatu ziren auzolanean.

Lan hori Agoizko Udaleko Ingurumen Arloak aurreko legegaldian hasi zuen komunala berreskuratzeko eta lehengoratzeko planaren barruan egin da. Proiektuaren urratsak honakoak izan dira: hasteko, bidegabe okupatuta zeuden udal lur-zatiak identifikatu ziren; ondoren, mugak berrikusi eta finkatu ziren; eta, bukatzeko, basoa berriro da, aziendak aprobetxatu eta mantendu dezakeen zuhaitzez beteriko bazka-larreak sortzeko. Horrela, lurzorua berronerratzea eta biodibertsitatea aberastea ere lortzen da.

Lanaren azken fase horretan, hainbat haritz eta arte landatu eta erein ziren, eta tubexekin babestu ziren landareak, aziendak edo beste belarjale batzuek haiekin buka ez dezaten.



Agoizko Udalak zaindu eta defendatuko ditu basoberritutako eremuaren kontserbazioa, komunala eta haren erabilera kolektiboa.

TXAKURREN ORDENANTZARI BURUZ

Ordenantzak etxe-animaliei buruzko arau komun batzuk ezartzen ditu, eta txakurrekin lotutako kapitulari dagokionez, jabeek bete behar dituzten osasun betebeharrak zehazteaz gain, txakurrak bide publikotik kontrolatuta zirkulatzea eta gorotzak jaso eta kentzeko betebeharrak azpimarratzen dira.

Bide publikoetan txakurren gorotzak uzten ohi direla salatuz arazo hori egunero pairatzen duten hainbat pertsonaren kezak direla eta, bai eta txakurrentzako berariaz debekatuta dauden berdeguneak jolasteko erabiltzen direla ikusita, Agoizko Udalak herritar guztiei gogorarazten die herritar guztiei indarrean jarraitzen duela Hiriko Animaliak Edukitzeko Ordenantzak.

Udalak duela urte batzuk onartu zuen arau hori

txakurrei zuzenduta dago bereziki, eta bertan osasun eta segurtasun baldintza batzuk ezartzen dira herritarren bizi kalitatea egokia izan dadin animaliekin bizitzeko.

Ordenantzak lagun egiteko animaliei buruzko arau komun batzuk ezartzen ditu, eta txakurrei buruzko kapitulu espezifikoa, jabeek bete behar dituzten osasun-betebeharrak adierazteaz gain, txakurrek bide publikotik modu kontrolatua zirkulatu behar dutela eta gorotzak jaso eta kendu behar direla azpimarratzen da.

Arau-haustetzat hartzen dira txakurrak uhalik gabe espazio publikoetatik eramatea, gorotzak ez garbitzea, eta animalia horiek behar den moduan ez elikatzea edo higie- eta osasun-ikuspegitik egokiak ez diren instalazioetan edukitzea. Arau-hauste horiek 150 eta 7.500

euro arteko isunekin zigortuko dira.

Ordenantzaren xehetasun guztiak atal honetan kontsulta daitezke: informazio instituzionala > Udal arauak eta erakundeak > Ordenantzak, udal webguneko gardentasun ataria.

KATUAK ESTERILIZATzea

Udalak Diaz etxearen inguruan ibiltzen diren kaleko zenbait katu esterilizatu zituzten albaitaritzaren espezialista batzuek. Hirigune historikoan dagoen kolonia kontrolik gabe haztea eragozteko ekintza da. Joan den urtean operazio bera egin zen «Papelera» alderdiko zenbait katurekin. Gainera, gogorazi nahi diegu herritar guztiei ezin zaiela animaliei kalean jaten eman, Udal Ordenantzaren arabera. Araua hausteak zigor ekonomikoak dakartza.

PILOTALEKUKO KANTXA TXIKIAREN ERABERRITzea

Joan den apirilaren Toki Ederreko kantxa txikia egokitzeko eta hobetzeko lanak egin ziren. 2004. urteaz geroztik, hau da, frontoi zaharrraren birgaitze osoa milioi bat euroko aurrekontuarekin egin zenetik, ez zen 1929an inauguratutako instalazio horietan jardun. Kantxa txikiko hormak eta beirateak hondaturik zeuden, eta beharrezkoa zen aurpegia garbitzea,

17 urtez kirol-jarduera handia egin ondoren.

Berrikuntza eta saneamendu lanak Construcciones Leache enpresak egin ditu, eta honako hauek konpondu dituzte: eskuineko alboko pareta, aldageletara sartzeko ate zaharrraren eremua (ezkerreko horman) eta frontisaren erdialdean. Pitzaduraren aurkako sare bat ja-

rri du, gogortasun handiko zementuzko morteroz zarpiatu du eta, sendatu eta bernizarekin finkatu ondoren, margotu egin da. Gainera, errebotere-eremuko bi beira handiak ordeztu dira. Guztira, 7.064 euroko aurrekontua izan du erreformak (BEZ kanpo). Gogorazi nahi dugu izan ezin dela barrutia erabili pala motzean, larruzko paletan edo erremontean jokatzeko.



2.823 BIZTANLE GARA DAGOENeko

Apirilaren 8an egindako osoko bilkuraren deialdiko puntuen artean, 2021eko urtarrilaren batean Agoizko biztanleen udalerroldaren zifra ofizialak onartzea zegoen. Aurreko urteko kopuruarekin alderatuta, biztanleria hazi da, 34 pertsona gehiago baitaude, hots, guztira 2.823 biztanle. Horien artean, 1.426 gizonetako dira eta 1.397 emakumezkoak.

16 heriotza eta 20 jaiotza izan ziren, 2019an, berriz, 23 heriotza eta 26 jaiotza. Gainera, 2020an 213 pertsonak eman zuten alta beste herri batzuetatik, eta 188k baja hartu zuten. Halaber, dagoeneko Agoitzen bizi ziren 5 pertsona gehiago ere erroldatu ziren, izena emanda zeudenik adierazi gabe. Azkenik, 35 etxebizitza aldatu dituzte herrian, 19 gizonen eta 16 emakumeen.



HERRITARREN BABESARI BURUZKO LANKIDETZA HITZARMENA BERRITU DA

Nafarroako Gobernuak eta suhiltzaile boluntarioen tokiko elkarteak dituzten Foru Erki-degoko zazpi udalek (horien artean, Agoizko Udala) lankidetzaren hitzarmena berritu zuten babes zibilaren eta larrialdiei aurre egiteko, batez ere suteen prebentzio eta itzalketari eta salbamenduari dagokienez.

Sinaduraren ekitaldia Nafarroako Jauregian egin zen. Foru Gobernuaren aldetik, Amparo Lopez Barne Arazoetako zuzendari nagusia, Jose Javier Boulandier Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuko zuzendaria eta Francisco Javier Baldanta Suhiltzaile Zerbitzuko zuzendaria izan ziren. Udalen aldetik, Agoitz, Bera, Izaba, Lesaka, Leitza, Goizueta eta Luzaide herrietako alkateak izan ziren.

Hitzarmenaren arabera, Nafarroako Gobernuak 203.000 euroko laguntza emango die udal horietako suhiltzaile boluntarioei, eta laguntza tekniko eta prestakuntza espezifikoa izanen dute. Era berean, hitzarmenaren helburuen artean dago pertsonen eta ondasunen babes- eta segurtasun-mailak handitzea; era

guztietako larrialdiak prebenitzeko ekintzak sustatzea, aurreikus daitezkeen arrisku-erakarako gailuetan parte hartzea, baita suteak itzaltzeko eta salbamendurako ekintzak eta

babes zibileko beste jarduketak batzuk ere. Halaber, larrialdi egoeretan esku-hartze egokia lortzeko beharrezkoak diren jarduketak adostu behar dira.



PILOTALEKUKO LEHEN SOLAIRUKO LOKALAREN ERABILERA ARAUTZEKO ORDENANTZA

Agoizko Udalaren osoko bilkurak, apirilaren 8an egindako bilkuran, Toki Eder pilotalekuko lehen solairuan dagoen udal lokalaren funtzionamendua arautzen duen ordenantza onartu zuten.

Espazio horrek 75 m² -ko azalera du, eta bere helburua da enpresa profesionalen proiektuak hartzea, bizitzako lehen hiru urteetan enpresa-jarduera hastearekin batera.

Lokal/mintegi hori erabili ahal izateko, ezinbestekoa da ekintzaileak enpresa-proiektu bat izatea. Proiektu hori Agoizko Udalarari eta Galarurreko Garapen Agentziari aurkeztu behar



zaie, baloratu eta onar dezaten.

Lokala/mintegia enpresa-proiektua errentamendu-erregimenean garatzeko utziko da, eta gehienez ere 3 urteko epean luzatu ahal izanen da. Hala ere, epe hori igarotakoan ez badago hura okupatzeko beste demandarik, kontratua luzatu ahal izanen da.

Azken urteetan Hizkuntza Ludotekak erabili du gune hau. Une honetan badago pertsona bat datozen hilabeteetan enpresa-jarduera berri bat hasiko duena. Agoizko eta Cederna udalek enpresa proiektua onartu dute.

HEKUNTZAK GARRAIO ZERBITZUA ZABALDU DIE BATXILLERGO ETA LANBIDE HEZKUNTZAKO 1.870 IKASLERI

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak Batxilergoko, Oinarrizko Lanbide Heziketako eta LHko Erdi Mailako 1.870 ikasleri zabaldu die 2021-22 ikasturterako eskola-garraio zerbitzua.

Carlos Gimeno Arloko departamentuburuaren arabera, «Garraio bermatua duten ikasleen kopurua nabarmen handitu da, eta irakaskuntza eta etapak nabarmen handitu dira, ikaste-

txeei antolatutako ibilbideetan garraiorako eskubidea edo, hala badagokio, plaza-erreserba bermatuta ikusten baitute Batxilergoko, LHko Erdi Mailako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako 18 urtetik beherako ikasleentzat».

Lehen aldiz, Hezkuntza Departamentuak bermatu du Batxilergoko 18 urtetik beherako eta LHko Erdi Mailako zikloetako ikasleek eskola-garraio izanen dutela beren ikastetxetara joateko,

garraio-eskubidea duten ikasleentzat antolatutako ibilbideetan, antolatutako ibilbideetako autobusetan hutsik dauden plazarak okupatuz.

Zehazki, 1.512 plaza izanen dira bermatuta ikasle horiek lehentasunez erabiltzeko (16 eta 18 urte bitartekoak). Hori posible izanen da ibilbideetan edukiera handiagoko autobusak sartzeari esker edo horien kopurua handituz, Foru Gobernuak jakinarazi duenez.

AGOITZ MIKEL ZABALZAREN KASUAREN EGIA JAKITEKO ESKAKIZUNARI ATXIKI ZAIO

Agoizko Udalak Mikel Zabalza gazte nafarraren heriotzaren inguruko adierazpen bat onartu zuen maiatzean egindako osoko bilkuran. Zehazki, mozioak Mikel Zabalzaren espedientearekin zerikusia duen material guztia desklassifikatu eta tortura arbuiatzea jasotzen du, legez kanpoko indarkeria eta giza eskubideen urraketa gisa. Horrez gain, eskatzen du Aezkoako gaztearen heriotzarekin lotutako audioetan adierazitakoa ikertzeko, 1985ean Guardia Zibila Intxaurrondon duen kuartelean atxilotu eta galdekatu ondoren Zabalzaren gorpua Bidasoa ibaiko uretan agertu zen 1985eko abenduaren 15ean agertzeagatik, Guardia Zibila bere bikotekidearekin, lehengusuarekin, anai-arrebekin eta Ion Arretxe idazlearekin batera atxilotu eta hiru astera. Guardia Zibilaren bertsio ofizialaren arabera, garai hartan 33 urte zituen gazteak ihes egin zuen Enderlatsako (Gipuzkoa) zulo batetik.

Deklarazioan azaltzen da otsailaren 22an «Público» komunikabideak argitaratu zituen grabazioek agerian uzten dutela Mikel Zabalzaren heriotza Intxaurrondoko Guardia Zibilaren kuartelean jasandako torturengatik izan zela.

Grabazioa Luis Alberto Perote CESIDeko (Defentsaren Informazio Zentro Nagusia) koronelak Mikel Zabalza atxilotu zuten garaian eta Pedro Gomez Nieto Guardia Zibileko kapitainak (Galindoren aginduetara zegoena) egindako

JUSTIZIA MINISTROA, AGOITZEN

Nafarroara eta, zehazki, Agoizko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegira egindako bisita aprobetxatuz, Juan Carlos Campo Justizia ministroa udaletxera hurbildu zen Angel



elkarrizketa bat da. Grabazio horretan Zabalzaren heriotza Intxaurrondon jasandako torturen ondorioz izan zela esaten da; zehazki, poltsa buruan aplikatzeagatik izan zela esaten da. Grabazio berean Gomez Nieto entzun daiteke, «Eskuetatik joan zaie, galdeketa geratu zaie».

IDOIA ZABALZAK MIKELEN HERIOTZA ARGITZEKO POLITIKOKI EKITEA ESKATU DU. Mikel Zabalzaren arreba «ekiteko ahalegina» eskatu du batzorde parlamentarioan, eta anaiaren heriotzaren nondik norakoak argitzeko Foru Ganberan aho batez egindako eskaerari bide gehiago emateko eskatu du. Martxoaren ha-

sieran lortutako adostasuna, ordea, aho batez onartu zen, Kongresuan eta Senatuan heriotza hori ikertzeko eta argitzeko lortu zuten babes faltaren aurrean. Idoia Zabalzak gogorarazi du gizartearen aldetik sentitzen duten aitortza «ordain morala» izan daitekeela, baina familiarak ere «egia eta justizia» behar dituela.

Idoia Zabalza Non dago Mikel? Dokumentalaren zuzendariak, Amaia Merinok eta Miguel Angel Llamas Pituk lagunduta agertu zen Herritarrekiko Harremanen Batzordean, eta dokumentalak Donostiako Zinemaldiko epaimahaiaren aipamen berezia jaso zuenetik lortutako oihartzun sozial eta mediatikoa azaldu zuten.



Epaitegian zein Udalean, ministroak antolaketa-eraginkortasunari buruzko legeri buruz hitz egin zuen. Lege horrek udalerrietako instantzia-azuztegiak, bulego judiziala eta justizia-bulegoak sortzea aurreikusten du, eta kudeaketa eraginkorragoa egiten eta landa-eremuko erronka demografikoa gainditzen lagunduko dute.

Bestalde, agoizko alkateak Campo ministroari jakinarazi zion Agoizko Udalak bat egin zuela Foru Parlamentuko Bozeramaileen Batzordeak Mikel Zabalzaren heriotzaren inguruan aho batez onartu zuen adierazpen instituzionalarekin. Proposamen horrek Aezkoako gaztearen heriotza ikertzea eskatzen du, duela gutxi ezagutzera eman diren audio batzuen arabera, eta Mikel Zabalza Guardia Zibilaren Intxaurrondoko kuartelean jasandako torturen ondorioz hil zela frogatzen dute. Unzuek Justizia ministroari eskatu zion audioak sakon ikertzeko Zabalzaren heriotza argitzeko.

CEDERNA GARALURREK 5 PROIEKTU BERRI LEHENETSI DITU

Urtarrilaren 27an amaitu zen Agoitzen Cederna Garalurrek, bere Zuzendaritza Batzordeko kideekin, antolatu duen parte-hartze prozesua, datozen bi urteetan garatuko dituen ekimenak identifikatzeko. Toki garapenerako agentzia honetan lan ildoak lehenesteko beharretik sortu da prozesu hau, erakundearen giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak zehaztu ahal izateko. Horretarako, elkarteak partaidetza sistema berri bat diseinatu du, Zuzendaritza Batzordearen ekarpenekin aberastu dena.

Prozesu hori duela hilabete batzuk hasi zen, Cederna Garalurrek bederatzi proposamenetan identifikatutako lan ildoak antolatu zituen. Ondoren, Zuzendaritza Batzordeak parte-hartze aktiboa izan du Agoizko Kultur Etxean proiektuak kontrastatzeko egin ziren bi saioetan. Lehenengo saioan, lantalde tek-



nikoak egindako hasierako bederatzi proposamenak landu ziren, eta hobekuntzak gehitu eta lau proiektu berri identifikatu ziren. Bigarren saioan, berriz, Cederna Garalurrek 2021ean eta 2020an abian jarriko dituen bost ekimen lehenetsi eta irakurri ziren.

CEDERNA GARALURREK FAKTURA ELEKTRIKOA MURRIZTEKO LAGUNTZA EMATEN DU

Azken asteetan, Cederna Garalurrek elkarteak jardunaldi irekien ziklo bat antolatu zuen Nafarroako mendialdeko herritarrentzat, elektrizitate-fakturaren aurrezteari buruz aholkatzeko, bai eta energia-eraginkortasuna edo energia berriztagarriaren erabilera hobetzeko neurriak abian jartzeko ere. Saio horietako bat maiatzaren 18an egin zen, Agoitzen.

«Landa jasangarritasuna» lankidetzaproiektuaren esparruan antolatutako eta Landa Garapenerako 2014-2020 Programak kofinantzatutako jardunaldi horietan, faktura elektronikoaren kontzeptuak eta horien analisia

azaldu ziren, eta aholkuak eman ziren fakturan erregistratutako egungo energia-konsumotik abiatuta fakturan aurrezteko moduari buruz. Saioak Aritz Chocarro Elkartearen energia adituak egin zituen.

Aholkularitza-saio horien osagarri, merkatu elektrikoari buruzko eta etxeetako eta toki-erakundeetako faktura elektrikoari eragiten dion moduari buruzko informazio-hitzaldiak eman dira. 2020ko uztailaren hasi zen proiektu horren helburua da «klimaren eta Energiaren aldeko Alkatezen Ituna» ekimenari atxikitako toki-erakundeek laguntza teknikoak

Proiektu horiek honako hauek dira: «Top topa» tokiko merkataritzako online plataformaren zabalkundea, honako hauek barne hartzen dituena: elkartutako saltokiei teknologia berriei buruzko prestakuntza programa bat; nekazaritzako elikagaien tokiko sistemak sustatzeko elikadura estrategiaren plan bat; negozioren belaunaldi errelebo bultzatzeko proiektu bat; energia komunitateei buruzko sentsibilizazio programa bat; eta ontziak ez diren plastikozko bilketak zerbitzu bat sortzea.

Prozesu honek Cederna Garalurren lan filofosofia islatzen du, estrategiak 'behetik gora' garatuz, lurraldearen beharretatik abiatuz eta eragile politiko, ekonomiko eta sozialekin tokiko aliantzak bilatuz, Nafarroako Mendialde osoaren onurarako soluzioak bilatzeko.

bermatzea, 2030a baino lehen CO₂ isuriak % 40 murrizteko, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriaren erabilera hobetzeko neurrien bidez.

Era berean, Cederna Garalurrek laguntza ematen die tokiko erakunde interesatuei komunitate energetikoak sortzen, energia berriztagarriaren instalazioak ezartzeko ikerketak egiten, hala nola baso-biomasa, autokontsumorako eguzki fotovoltaikoa edo minihidraulikoa, bero-sareetarako bideragarritasun-analisia, eta herritarrei zuzendutako energia aurrerazteari buruzko aholkularitza.

AGOITZALDEKO MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZUEKIN IZANDAKO TOPAKETA



Denok Bat Merkataritza eta Zerbitzuen Federazioak zortzi merkataritza-erakunde biltzen ditu, gehienak Nafarroako Mendialdeko landatarrak. Cederna Garalurre erakundearekin lankidetzan (finantzatzailea da), «Toptopa» (www.toptopa.shop) on line salmenta-plataforma baten di-

